

# **LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA**

**ITSAS NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA GARRAIOKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA, ETA  
ITSASONTZIKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN  
IKUSKAPEN ETA KONTROLEKO GOI-MAILAKO  
TEKNIKARIA**

## **2. ARIKETA**

**1. eta 2. kasu praktikoak**

**Pasaia, 2012-04-16**

## 1. KASU PRAKTIKOA:

Arrantza ikuskatzeko Zerbitzuak (AIZ-k) arraina errepidez ondo garraiatzen den ikuskatzeko saio bat egiteko asmoa du. Arraina daraman kamioi bat geratu dute (baldintzak: X BERRI arrantza-ontzi profesionalak arraina portu baimendu batean deskargatu du, eta arrain hori autonomia-erkidegoko bertako lonja batera daramate, lehenengo salmenta egitera). Garraiolariak badu GARRAIO-AGIRIA. Agiri horren informazio-maila 1224/2009 Kontrol Erregelamenduan eta Lehen Salmentako 1822/2009 Errege Dekretuan jartzen duenaren arabera da, eta zuzen dago.

Daramatzen produktuak begiz aztertu dituzte. Arraina ontzitan dator, eta ontziak etiketa gabe eta palet gainean. Garraio-agirian zer jartzen duen ikusi, eta, itxura denez, karga agirian jartzen duen bezala doa, zuzen, baina, halako batean, beste arrain-lote txiki bat aurkitu dute, heldu gabeko arraina da, X BERRI ontziak harrapatua, eta inongo agiritan agertzen ez dena.

AIZk badaki gertatzen direla horrelako gauzak, eta handik hurbil baditu arrain-paletak-eta maneiatzeko instalazio egoki batzuk.

1224/2009 Kontrol Erregelamendua, 404/2011 Exekuzio Erregelamendua eta aplikatu beharreko gainerako arauak kontuan hartuz...

**1) Egoera horretan, azaldu ezazu, labur-labur baina urratsez urrats, eta zernolako tresnak dauzkaten kontuan hartuta, arrantzako ikuskatzaileek zer egin behar duten.**

**2) Zehaztu itzazu, banan-banan, IKUSKARITZA-TXOSTENEAN (AKTAN) jaso beharreko oinarrizko gauzak (ez idatzi, hitzez hitz, txosten bat, eta ez exekuzio-erregelamenduko XXVII. eranskina hitzez hitz idatzi).**

**3) Ikuskaritza-lan horiek amaitu ondoren, ikuskatzaileek beste zer egin behar dute, kontuan hartuz, itxura denez behintzat, arau-hausteren bat gertatu dela.**

## 2. KASU PRAKTIKOA:

2.1. Kontu egin EAeko Arrantza Ikuskatzeko Zerbitzuko bi ikuskatzailek X BERRIA inguraketa-ontzia ikusi dutela (Getarian du basea). Inguraketa-arrantzan ari da, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan, baina ez da inon ageri horretarako baimena baduenik. Horregatik, joan dira bertaraino, eta ikusi dute baietz, inguraketa-arrantzan zebilela baina ez daukala barruko uretan arrantzan egiteko baimenik. Igo dira BERRIA X ontzira, eta egin beharreko izapideak egiten hasi dira. Harrapatutako arraina ontzira jasota daukate, kubiertan. Ikuskatzaileek ez dute beste arauhausterik nabaritu.

**1) Nabaritu duten arauhaustea dela-eta, ikuskatzaileek zer egin behar dute, eta, ikuskapenak irauten duen bitartean, zein neurri hartu beharko dituzte? (arrantza-politika erkidea kontrolatzeko 1224/2009 erregelamendua eta aplikatu beharreko beste arau guztiak aplikatu).**

**2) Zein arau-hauste gertatu da edo gertatu dira? Zein arau urratu dute edo urratu dituzte?**

**3) Arau-hauste horiek direla-eta, zein zehapen edo zigor jar daitezke?**

**4) Nork jarri behar ditu zehapenak edo zigorrak? Zein organotara jo daiteke, zehapena errekurritzeko?**

2.2 Iritsi dira bulegora, eta ikuskatzaileek lanean jarraitzen dute, X BERRIA inguraketa-ontzia zertan ibili den jakin nahian. Horretarako, agintariei hainbat informazio eskatu diete: ontziko egunerokoetan jasotako datuak; lehorreratze-deklarazioak; salmenta-oharrak; ontzien posizionatze sistema eta abar. Informazio hori dena ikusita, ikuskatzaileak ondorio hauetara iritsi dira: Ikuskatu aurreko igandean, X BERRIA ontzia Kantauriko eta Ipar-Mendebaleko arrantzagune nazionalean ibili zela arrantzan, kanpoko uretan, eta, lehorreratze-deklarazioaren arabera eta Getariako Kofradiako salmenta-oharraren arabera, harrapaketa hauek egin zituela:

Berdela: 6.500 kg. (arrantza zabalik zegoen).

Lupia: 100 kg

Txibia: 50 Kg

**1) Zein arau-hauste gertatu da edo gertatu dira? Zein arau urratu dute edo urratu dituzte?**

**2) Arau-hausterik egon baldin bada, zein administraziook dauka zehapena jartzeko eskumena?**

# LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA

**ITSAS NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA GARRAIOKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA, ETA  
ITSASONTZIKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN  
IKUSKAPEN ETA KONTROLEKO GOI-MAILAKO  
TEKNIKARIA**

## 2. ARIKETA

**3. kasu praktikoa**

**Pasaia, 2012-04-16**

### 3. KASU PRAKTIKOA:

## SARE-BEGIAREN TAMAINA NEURTZEA ARTE AKTIBOA


Batzordearen 2008ko ekainaren 10eko 517/2008 zk.dun (EE) Erregelamendua hartzen baldin badugu, sare-begiaren tamaina eta sare-harien lodiera neurtzeko hainbat arau zehatz ikusiko dugu. Erregelamendu horren arabera, neurketa **milimetrotan** egin ondoren, zein da **emaitza**?

**Sare-begia ..... milimetrokoa.**

# **CUERPO DE AYUDANTES TÉCNICOS**

**OPCIÓN: T. S. NAVEGACIÓN, PESCA Y  
TRANSPORTE MARÍTIMO**  
**OPCIÓN: T. S. SUPERVISIÓN Y CONTROL DE  
MÁQUINAS E INSTALACIONES DEL BUQUE**

## **2ª PRUEBA**

**Casos prácticos 1 y 2**

**Pasaia, 16-04-2012**

## CASO PRÁCTICO Nº 1

El Servicio de Inspección Pesquera (S.I.P.) ha programado una inspección de transporte en carretera. Se ha detenido un camión con una carga de pescado (La embarcación NUEVO X de pesca profesional ha realizado una descarga de pescado en un puerto autorizado y se traslada el pescado a una lonja dentro de la misma Comunidad Autónoma para realizar la 1ª Venta ). El transportista presenta un DOCUMENTO DE TRANSPORTE cuyo nivel de información se ajusta a lo expuesto en el Reglamento de Control 1224/ 2009 y en el Real Decreto 1822/2009 sobre primeras ventas.

Se procede a realizar una visión ocular de los productos transportados. El pescado viene en envases sin etiquetar y sobre pallets. Parece que la carga que lleva el camión, se ajusta a lo anotado en el Documento de Transporte, pero durante la comprobación, se ha detectado un pequeño lote de pescado inmaduro capturado por la embarcación NUEVO X que no se halla reflejado en ningún documento.

El S.I.P. ha previsto éste tipo de situaciones y en las inmediaciones posee unas instalaciones adecuadas para poder operar con pallets de pescado.

Teniendo en cuenta el Reglamento de Control 1224/2009, el Reglamento de Ejecución 404/2011, y demás normativa de aplicación...

***1) Enumerar concisamente los pasos que deben dar los inspectores de pesca posteriormente a la situación narrada, teniendo en cuenta las herramientas de que disponen.***

***2) Enumerar los aspectos básicos que se deberán hacer constar en el INFORME (ACTA) DE INSPECCIÓN. (No redactar un informe literal ni transcribir literalmente el anexo XXVII del Reglamento de ejecución).***

***3) Una vez concluida la inspección en el lugar donde se ha desarrollado, qué otras actuaciones deben realizar los inspectores actuantes, teniendo en cuenta que de las citadas actuaciones se deriva la comisión de una presunta infracción.***



## **CASO PRÁCTICO Nº 2**

2.1. Dos inspectores del Servicio de Inspección Pesquera de la CAPV detectan que la embarcación de cerco NUEVO X (con puerto base en Getaria) se encuentra pescando en la modalidad de cerco en aguas interiores de la Comunidad Autónoma de Euskadi sin que les conste que dispone de autorización. Por eso se desplazan al lugar de los hechos, donde comprueban que, efectivamente, dicha embarcación se encontraba pescando en la modalidad de cerco y que no disponía de autorización para pescar en aguas interiores. Ante esta situación, los inspectores se embarcan en el buque NUEVO X para realizar los trámites oportunos. Cuando se embarcan, el pescado obtenido en el lance ya está a bordo, en la cubierta. Los agentes no constatan ninguna otra presunta infracción.

**1) *¿Respecto de la posible irregularidad detectada, qué actuaciones deberán llevar a cabo los agentes y qué medidas deberán adoptar durante el desarrollo de la inspección? (aplique el Reglamento 1224/2009, de control de la política pesquera común, y demás normativa que sea de aplicación).***

**2) *¿Qué infracción o infracciones se han cometido? ¿Qué norma o normas se han vulnerado?***

**3) *¿Qué sanciones puede acarrear esta o estas infracciones?***

**4) *¿A quién corresponde imponer la sanción? ¿Ante qué órgano sería recurrible?***

2.2 Ya en la oficina, los inspectores de pesca continúan realizando pesquisas sobre la actividad de la embarcación de cerco NUEVO X. Para ello solicitan a las autoridades competentes diversa información, que incluye datos de los diarios de abordaje, declaraciones de desembarque, notas de venta, sistema de posicionamiento de buques, etc. Del conjunto de la información los inspectores obtienen las siguientes conclusiones: Que la embarcación NUEVO X pescó en el caladero nacional del

Cantábrico y Noroeste, en aguas exteriores, el domingo anterior a la inspección que se cita en el apartado anterior y, además, realizó las siguientes capturas según declaración de desembarque y la nota de venta realizada en la Cofradía de Getaria:

Verdel: 6.500 Kg. (estaba abierta la pesquería)

Lubina: 100 Kg

Calamar: 50 Kg

***1) ¿Qué infracción o infracciones se han cometido?¿Qué norma o normas se han vulnerado?***

***2) ¿Qué Administraciones son las competentes para sancionar la posible infracción o infracciones detectadas?***

# **CUERPO DE AYUDANTES TÉCNICOS**

**OPCIÓN: T. S. NAVEGACIÓN, PESCA Y  
TRANSPORTE MARÍTIMO**  
**OPCIÓN: T. S. SUPERVISIÓN Y CONTROL DE  
MÁQUINAS E INSTALACIONES DEL BUQUE**

## **2ª PRUEBA**

**Caso práctico 3**

**Pasaia, 16-04-2012**

### CASO PRÁCTICO Nº 3

## DETERMINAR EL TAMAÑO DE MALLA DE LA RED ARTE ACTIVO


Según el reglamento (CE) nº 517/2008 de la comisión de 10 de junio de 2008, donde se prevén normas detalladas para la determinación del tamaño de las mallas y el grosor del torzal de las redes de pesca, y realizada la medición en **milímetros**, da como **resultado** :

**Un tamaño de malla de                      milímetros**